

IÑIGO URKULLU RENTERIA

“EUSKADI: ASKATASUN NAZIONALERAKO NAHIA”

AUTOGOBERNUA, EUSKAL GIZARTEAREN GARAPEN POLITIKO ETA SOZIALAREN GILTZARRI

HERMES aldizkariak bere mendeurrena etorkizunari begira ospatzea erabaki du, eta gogoeta bat egitea “Euskal Nazioak” XXI. mendean dituen erronkez eta gure eremu instituzionalak Euskadiren eraikuntza nazional eta soziala bultzatzeko duen ahalmenaz. Planteamendu egokia da, funtsezko une bat bizitzen ari gara-eta gure historian, eta mende osoan inoiz izan ez dugun aukera bat daukagulako gure

aurrean: euskal tradizio politiko guztion artean eztabaidatzeko aukera, eta, hala badagokio, gure herriarentzat eremu juridiko-politiko berri bat adostekoa ere bai.

Bake- eta askatasun-jokaleku honetan, euskal erakunde eta alderdi politiko guztiek eta gizarte osoak parte hartu eta lagundu behar dugu, etorkizunari begira arduraz jokatzuz, gure autogobernua gaurkotzeko eta sakontzeko prozesuan, hau da, herriaren benetako proiektu partekatu batean. Proiektu horrek garen eta eraikitzen ari garen Euskadi du oinarri, munduari erakutsi nahi dioguna. Zer-nolako Euskadi, baina? Bakean dagoena, sozialki kohesionatuta, kanpora irekia, lehiakorra eta solidarioa eta prestakuntza eta balioak dituzten pertsona konprometituez osatua. Azken finean, bere historiaz eta ibilbideaz harro dagoena, betiere jakinik oraindik ere asko ikasi eta eskaini beharra daukala mundu global, ireki eta konplexu honetan.

Etorkizunari begiratzen diogu sine-tsita politikak bere mailarik goena lortzen duela aukera desberdinek erabakitzen dutenean diferentziak alde batera uztea eta helburu erkide baten alde egitea, etorkizunari begira arduraz jokatzuz eta herri-erikiko konpromisoa erakutsiz. Finean, ados jartzea erabakitzen dute, gizarteak irabaz dezan. Garai berri honetan, proposatzen dut epe luzera begiratzea, eta

LEHENDAKARI

planteatzen dut komeni dela daukagun aukera baliatzea gure gizarteak nazio baten kide izateari dagokionez dituen sentimendu desberdinak errespetatuko dituen topagunea aurkitzeko, hau da, sentibiltate politiko guztiek gure herrian beren lekua aurkitzeko borondatea erakusten duen konponbide adostu bat.

Gaur, etorkizunari begira dagoen Euskadik badaki instituzionalki hazteko aukera duela. Eta aukera hori garatu dezake, Agirre lehendakariaren lehenengo gobernuak duela 80 urte hasi zuen esperientziatik abiatuta, zeinari berriz ekin zitzaion orain dela lau hamarkada Gernikan.

Gaur egun, kontu askotan gatoz bat, autogobernua Euskadirako dugun proiekturako funtsezko elementua delako ideiarekin hasita. Gernikako Estatutuak lagundu du gure bizikidetzan eta ongizatea hobetzen. Baina osorik bete gabe dago oraindik. Diagnostiko erabat kritikoa egiten dugu gaur egungo egoeraz, hain zuzen ere, Estatutua ez delako bete eta autogobernua debalatu egin delako zenbait faktoreren ondorioz: gobernuak zekenkeriaz jokatu dute transferentziak gauzatzerako orduan, berriz zentralizatzen duten legeak ezarri dira eta Konstituzio Auzitegia Estatuko botere zentralen alde lerrokatu da.

Estatutu osoa bete behar da. Bat gatoz horretan. Elkar hartuta lan egin behar dugu euskal autogobernua defendatzeko, Gernikako Estatutua osorik bete dadin lortzeko eta herriaren ardatza den arkitektura instituzionala hobetzeko.

EAEko alderdi guztiok bat gatoz Ekonomia Itunaren eta Hitzarmenaren sistemak aitortzen duen berezitasunarekin, eta bat egiten dugu haren defentsan. Orobat, uste dugu autogobernua gaurkotu beharra dagoela, eta gaur egun Europak duen errealitate berrira egokitu behar dela, Europako kide baikara. Euskadi Europa da, nazio bat, eta aitortua izan nahi du. Izatez, Europako idealarekin bat gatoz, zeinak, Erromako Itunaren 60. urtemuga beteko den honetan, sortu zeneko gogoari ekin nahi baitio berriz. Une horrek hasiera berri bat izan behar

GAUR, ETORKIZUNARI BEGIRA DAGOEN EUSKADIK BADAKI INSTITUZIONALKI HAZTEKO AUKERA DUELA. ETA AUKERA HORI GARATU DEZAKE

du Europa osatzen dugun herri guztion segurtasuna, ongizatea eta etorkizuna bermatzeko. Izan ere, jomuga eta ikuskera partekatu behar ditugu, mundu multipolar honen barruan.

Berriz formalizatu behar da Estatuaren lurralde-eredua, bere errealitate plurinazionala onar dezan. Hauxe da unea Euskadik aurrera egin dezan bizikidetzako esparru politiko berri batean. Hala, lortutako erakunde-adostasunetik abiatuta, Estatuarekin itun berri bat prestatu behar du, eta euskal gizarteak berretsi behar du itun berri hori. Euskadik bilateraltasun

efektiboa lortzeko mekanismoak behar ditu, Estatuarekin itundutakoa betetzen dela bermatzeko. Gure historiaren eta gure kultura politikoren parte da ituna. Gure helburua da gure estatus politikoa- ren berritze itundua sustatzea, bi zutabe hauetan finkatuta: elkarrekiko aitorpenean eta bilateraltasun efektiboan.

**GURE HELBURUA DA GURE
ESTATUS POLITIKOAREN
BERRITZE ITUNDUA
SUSTATZEA, BI ZUTABE
HAUETAN FINKATUTA:
ELKARREKIKO AITORPENEAN
ETA BILATERALTASUN
EFEKTIBOAN**

Testuinguru honetan, uste dugu euskal autogobernuari eutsi behar zaiola, dagoeneko aitortuta dituen botereak handituz, bai eta Europako errealitatera egokituz eta dagoeneko finkatuta dagoen eraikitze instituzionalaren eta sozialaren mugak zabalduz ere. Oinarri sendoa dugu; izan ere, Gernikako Estatutua eskubide historikoen adierazpen gaurkotua da, eta geure konstituziotzat jo zuen euskal gizarteak hura sortu zuenean. Gaur egiaztatzen dugu, ordea, oraingo esparruak ez duela errespetatzen 1979ko Estatutu Ituna inspiratu zuen gogoia, “subjektu”, “bilateral- raltasuna”, “ituna” eta “bermeak” printzipioak ezarri zituena. Ez da posible izan Estatutuaren erabateko garapena bermatzen duten tresnak adostea eta sortzea; ezta Estatutua betetzeko bermeak ziurtatzea ere, haren itun-izaera gordetzeko.

Itun berria behar dugu. Ezinbestekoa da Estatuaren errealitate plurinazionala onartzea, eta Euskadiko autogobernuari euskal herritarrek nahi duten maila ematea.

Ez gara hutsetik abiatzen, gure autogobernu-sistema berezia delako, lotura konstituzional argia eta esplizitua duelako, eta berezia izanik orokortzerik ez dagoelako, haren Lehenengo Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera. Lotura konstituzional horrek, gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Nafarroarekin lotzen ditu sustrai historiko berean, zeinak erro forala baitauka, autogobernuko tradizio berean eta etorkizuna askatasunean eraikitzeko bokazio berean, betiere herritarren borondate demokratikotik abiatuz eta euskal-lurralde guztien autogobernura- rako gaitasuna garatuz.

**ITUN BERRIA BEHAR
DUGU. EZINBESTEKOA DA
ESTATUAREN ERREALITATE
PLURINAZIONALA
ONARTZEA, ETA EUSKADIKO
AUTOGOBERNUARI EUSKAL
HERRITARREK NAHI DUTEN
MAILA EMATEA**

HERMES aldizkariak aukera ematen digu gure historiaren une erabakigarri batean gogoeta elkarbanatzeko. Guri dagokigu gure autogobernua gaurkottzeko eta sakontzeko ditugun aukera desberdinak partekatzea eta ikertzea. Bide bat da Konstituzioaren eta Estatutuaren oraingo esparruak eskaini ditzakeen aukerak baliatzea, Estatu-ko legeetan sartu beharreko foru-salbuespena ezartzen duten klausulak trinkotasun handiagoz eta modu sistematikoago batez erabiliz, eta, euskal autogobernuaren berezitasuna babesten eta sendotzen duten Estatu-ko legeak interpretatzeko akordioak sinatuz, Euskadiren eta Estatuaren arteko Bitariko Lankidetzaren Batzordearen barruan.

Gernikako Estatutua aldatzeko bidea aztertu beharra dago, hura estatutu erabat berezia bilakatze aldera, eta ez araubide orokorrekoa, hau da, euskal herritarren eskubide historikoak gaurkutzen dituen, haren nortasuna politikoa- ren erabateko aitortzea sustatuz, bai eta guztion nahiak erabat garatzea ahalbidetuko dituen botere-multzo berezi eta bakarra ere. Kontua litzateke Estatutuaren erreforma planteatzea, eta anbizio handiagoz interpretatzea Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarria, Estatutuaren bidetik esplizitu eginez xedapen horrek inplizituki jasotzen zuen potentzial osoa, erabat garatu ez dena.

Estatuak “konstituzionalismo erabilgarria” aplikatzeko aukera du, Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak zabaltzen dituen aukerak esploratu baititzake. Kontua izango litzateke Konstituzioan argi eta garbi adieraztea Lehenengo Xedapen Gehigarrian inplizituki egonda inoiz garatzeko aukera egon ez zen guztia, Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarri Bakarrean ere ezarrita dagoen bezala. Bide horrek “Euskal Konstituzio Foral”ean aurrera egitea ekarriko luke, zeinak lau herrialdeak tradizioan eta bokazioan batzen baititu. Bide horrek, gainera, autogobernuaren formulazio historikoa- ren arabera definituko luke etorkizuneko estatutu politikoa.

Euskadiren berezitasuna lotura juridikoan oinarritzen da, baita lotura juridiko-konstituzionalean ere, hark babesten eta errespetatzen baititu gure eskubide historikoak, jatorrizko askatasunak, itunaren bidez gordeak. Bereztasun juridiko hori ahalik eta gehien esploratzearen eta esplotatzearen aldekoa naiz, akordiotik abiatuta aurrera egiten uzten digulako garai berri honetan.

Uste osoa dut bide horretatik aurrera egin dezakegula autogobernu handiagoan, eta politika ekonomikoak, sozialak eta kulturalak garatu ditzakegula, haiei esker gure etorkizunari bermeekin

aurre egiteko, eratzen ari den Europaren esparruan. Horrez gain, Nafarroarekin bat egiteko eta adostasuna lortzeko eremu efektiboak topatu ditzakegu, esparru foralean, autogobernuaren tradizio eta bokazio berbera partekatzen uzten digun heinean. “Nazio forala” garen aldetik, gure eskubide historikoek, babesten eta errespetatzen badira, asko eman dezakete, gure itun instituzionalak lortzeko gaitasunak eta herritarrek berresten dituzten erabaki politikoak hartzeko eta errespetatzeko gaitasunak eman dezaketen beste eman ere.

Ildo horretatik topatu dezakegu autogobernuan aurrera egiteko bidea, nazio gisa aitortza lortzeko eta Euskadi eraikitzen jarraitzeko, Europa indartsuago eta irekiago batean. Oinarri horren gainean, itun berria lortzeko gaitasuna daukagu, baldin eta elkarrekiko aitortzatik eta bilateraltasun efektibotik abiatzen bagara. Lehenengo Eusko Jaurlaritza eratu zenetik zortzi hamarkada baino gehiago igaro eta gero, jarraitzen dugu pentsatzen autogobernua bizi-kalitatearen eta ongizatearen sinonimoa dela, eta gure herriaren eraikuntza nazionala eta sozialaren bideari eusten diogu, bai eta Jose Antonio Agirre lehendakariak adierazitako nahiari ere: akordioa bilatu behar dugu “Euskadiren askatasun nazionalerako nahi” horri bide emateko.